# Pribatuen Iragarkiak


**EUSKO TRENBIDEAK**

IRAGARKIA, 2007tik 2009ra Eusko Treneko zaintza- eta babes-zerbitzua kontratatzeko dena, prozedura irekiko lehiaketaren bidez. 3582

**BASQUETOUR-TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA, S.A.**

IRAGARKIA, Euskadiko eskaintza sustatzeko 2007an Madrilen egingo diren ekintzen lehiaketa prozedura irekiaren bidez kontratatzeko dena. 3583


# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

## 1096

14/2007 DEKRETUA, otsailaren 6koa, Osakidetzako Aholkularitza Juridikoari atxikitako letratuak gaitzen dituena, zertarako, eta jurisdikzio sozialaren aurrean bideratutako prozeduretan —gastu medikoak ordaintzekoetan— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ordezkatu eta defenditzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Epaietarako Ordezkotza eta Aldezpenari buruzko ekainaren 26ko 7/1986 Legeko 2.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Osakidetzako Aholkularitza Juridikoari atxikitako letratuak gaitzeko erabaki hartu zen Auzibide zuzendariaren 1997ko apirilaren 14ko Ebazpenez, zertarako, eta jurisdikzio sozialaren aurrean bideratutako prozeduretan —gastu medikoak ordaintzekoetan— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ordezkatu eta defenditzeko. Adierazi zen, halaber, ordezkapen eta defentsa hori Zerbitzu Juridiko Nagusiekin batera egingo zela baldin eta errekurtso jurisdikzionalen zenbatekoa hiru milioitik gorakoa bazen.

Osasun Sailaren eta «Osakidetza/Servicio Vasco de Salud» izeneko Organismo Autonomoaren egitura organikoak eta funtzionalak ezartzen dituen uztailaren

# Anuncios Particulares


**EUSKO TRENBIDEAK**

ANUNCIO para la contratación por el procedimiento abierto de concurso de servicio de vigilancia y protección de Euskotren de 2007 a 2009. 3582

**BASQUETOUR-AGENCIA VASCA DE TURISMO, S.A.**

ANUNCIO para la contratación por el procedimiento abierto, de concurso relativo a la contratación de acciones promocionales de la oferta de Euskadi en Madrid en 2007. 3583


# Disposiciones Generales

## VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

## 1096

DECRETO 14/2007, de 6 de febrero, por el que se habilita a los/as Letrados/as adscritos/as a la Subdirección de Asesoría Jurídica de Osakidetza-Servicio vasco de salud para la representación y defensa de la Administración General del País Vasco en procedimientos de reintegro de gastos médicos seguidos ante la jurisdicción social.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 2.1 de la Ley 7/1986, de 26 de junio, de Representación y Defensa en Juicio de la Administración General del País Vasco, por Resolución de la Directora de lo Contencioso, de 14 de abril de 1997, se acordó habilitar a los/as Letrados/as adscritos/as a la Subdirección de Asesoría Jurídica de Osakidetza-Servicio vasco de salud para la representación y defensa de la Administración General en los procedimientos de reintegro de gastos médicos seguidos en la jurisdicción social, señalándose, no obstante, que tal representación y defensa se ejercitaría de forma conjunta con los/as Letrados/as adscritos/as a los Servicios Jurídicos Centrales cuando la cuantía de los recursos jurisdiccionales superasen los tres millones de pesetas.

Para conocer el origen de esta habilitación, hay que remontarse al Decreto 369/1995, de 11 de julio, por el que se establecía las estructuras orgánicas y funciona-

11ko 369/1995 Dekretura jo behar da gaitze horren iturria zein den jakiteko. Dekretu horretako 9.1.c) artikuluak Aseguramendu eta Kontratazio Zuzendaritzari egotzi zion sanitate-sorospeneko arloko gastuak ordaintzeko eskabideak ebazteko ahalmena, orain arte Osakidetzaren esku baitzegoen.

Horren ondorioz, gastu medikoak ordaintzeko prozeduretan Administrazioaren ordezkapen eta defentsa jurisdikzionala, ordura arte Osakidetzako zerbitzu juridikoek egiten zutena, Zerbitzu Juridiko Nagusiaren esku gelditu zen.

Aurrekoa gora-behera, zelan eta orduan prozedura ugari izapidetzen zen eta Osakidetzako pertsonalak eskarmentu handia zuen arlo horretan, bada Osakidetzako Aholkularitza Juridikoko Zuzendariordetzari atxikitako letratuak gaitzea erabaki zen lehen esandako eran.

Egoerak bere horretan dirau gaur ere. Gaur egun, hala ere, Auzi-bidearen aurretiko erreklamazioak —osasun sorospena emateak sortutako gastuak ordaintzeko arloan aurkeztutakoak— ebazteko organo eskumenduna Osasun Sailean, eta, batik bat, 19.000 eurotik gorako eskabideak ebazteko, Osasun Finantziazio eta Kontratazioko Zuzendaritza da. Aipatu zenbatekotik beherakoak Osasuneko Lurralde Zuzendaritzek ebatziko dituzte, halaxe baitago xedatuta Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 6ko 268/2001 Dekretuko 13.c) eta 15.d) artikuluetan. Salbuespeneko beste arrazoi bat da, izan ere, Osakidetzaren gaur egungo izaera juridikoa Zuzenbide Pribatuko Entearena dela, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 20. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Gaitze esperientzia hori eta horrek antolakuntzari —eta arlo sozialari ere bai— erakarritako aldaketak positibotzat jotzen ditu administrazio honek, zeintzuk Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari eragin baitiote azken urteotan, zelan, eta Aholkularitza Zerbitzu Nagusien esku hartzea behar duten auzigaiak egunero handituz. Horrek guzti horrek aholkatzen duena da orduko hartan Osakidetzako Aholkularitza Juridikoko Zuzendariordetzara atxikitako letratuei esleitutako gaikuntza berraztertzea, nola, eta jurisdikzio sozialaren aurrean bideratutako prozeduretara —gastu medikoak ordaintzekoetara— zabalduz. Ez da beharrezkoa izango, orain arte izan den eran, Aholkularitza Zerbitzu Nagusiei atxikitako letratuekin batera jardutea, erreklamatutako gastu medikoen zenbatekoa kopuru jakin batetik gorakoa bada.

les del Departamento de Sanidad y del entonces Organismo Autónomo Administrativo Osakidetza-Servicio vasco de salud. Su artículo 9.1.c) atribuyó a la Dirección de Aseguramiento y Contratación Sanitaria del Departamento de Sanidad la facultad de «resolver las solicitudes de reintegros de gastos en materia de asistencia sanitaria», facultad que hasta ese momento había correspondido al Organismo Autónomo Osakidetza-Servicio vasco de salud.

En consecuencia, la representación y defensa de la Administración en sede jurisdiccional en los procedimientos de reintegro de gastos médicos, que venía siendo ejercitada por los Servicios Jurídicos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, pasó a corresponder al Servicio Jurídico Central.

No obstante lo anterior, dado que el número de procedimientos que se tramitaba por aquel entonces era elevado y que el personal de Osakidetza tenía una importante experiencia acumulada en la materia, se acordó habilitar a los/as Letrados/as adscritos/as a la Subdirección de Asesoría Jurídica de Osakidetza-Servicio vasco de salud en el sentido ya indicado.

Esta situación se mantiene hoy en día, con las salvedades de que en la actualidad el órgano del Departamento de Sanidad competente para la resolución de las reclamaciones previas a la vía judicial que se formulen en materia de reintegro de gastos por asistencia sanitaria y, particularmente, la resolución de las solicitudes cuyo importe supere la cuantía de 19.000 euros, es la Dirección de Financiación y Contratación Sanitaria –la resolución de las solicitudes inferiores a esa cuantía corresponde a las Direcciones Territoriales de Sanidad- [artículos 13.c) y 15.d) del Decreto 268/2001, de 6 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad], y que la naturaleza jurídica actual de Osakidetza-Servicio vasco de salud es la de Ente Público de Derecho Privado, de conformidad con lo previsto en el artículo 20 de la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi.

El positivo balance que hace esta Administración de esta experiencia de habilitación y los cambios organizativos, e incluso sociales, que han afectado a la Administración General del País Vasco durante los últimos años, que suponen un aumento constante de asuntos que requieren la intervención de los Servicios Jurídicos Centrales, aconsejan replantear el contenido y la extensión de la habilitación concedida en su día a los/as Letrados/as adscritos/as a la Subdirección de Asesoría Jurídica de Osakidetza-Servicio vasco de salud, ampliándola a la totalidad de procedimientos en materia de reingreso de gastos médicos seguidos ante la jurisdicción social, sin que sea precisa, como hasta ahora, la intervención conjunta con los/as Letrados/as adscritos/as a los Servicios Jurídicos Centrales cuando el importe de los gastos médicos reclamados superen una determinada cuantía.

Gaikuntzari darizkion eginkizunak Aholkularitza Juridikoko Idazkaritza Nagusiak koordinatu eta zuzenduko ditu, titularra ere bera izanik. Bermatuta gelditzen da irizpide- eta jarduera-batasuna Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra epaiketetan ordezkatu eta defendatzerakoan.

Ondorioz, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko otsailaren 6an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Osakidetzako Aholkularitza Juridikora atxikitako letratuak gaitzen dira, zertarako, eta jurisdikzio sozialaren aurrean bideratutako prozeduretan —gastu medikoak ordaintzekoetan— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ezelango diru-muga barik ordezkatu eta defenditzeko.

*2. artikulua.–* Gaikuntzari darizkion eginkizunak Aholkularitza Juridikoko Idazkaritza Nagusiak koordinatu eta zuzenduko ditu, titularra ere bera izanik. Auzibide Zuzendaritzak, horretarako, aginduak eta jarraibideak eman ditzake, letratuek euren eginkizunak gara ditzaten organo jurisdikzionaletan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da Auzibide zuzendariaren 1997ko apirilaren 14ko Ebazpena, Osakidetzako Aholkularitza Juridikoari atxikitako letratuak gaitzen dituena, zertarako, eta jurisdikzio sozialaren aurrean bideratutako prozeduretan —gastu medikoak ordaintzekoetan— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ordezkatu eta defenditzeko.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Baimena ematen zaio Jaurlaritzako lehendakariordeari dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren arauak emateko.

*Bigarrena.–* Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko otsailaren 6an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Jaurlaritzaren lehendakariordea,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

No obstante, el desarrollo de las funciones a que se contrae la habilitación se producirá bajo la dirección, coordinación y titularidad de la Secretaría General de Régimen Jurídico, quedando garantizada la unidad de criterio y de actuación respecto a las funciones de representación y defensa en juicio de la Administración General del País Vasco.

En su virtud, a propuesta de la Vicepresidenta del Gobierno, previa la correspondiente deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 6 de febrero de 2007,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Se habilita a los/as Letrados/as adscritos/as a la Subdirección de Asesoría Jurídica de Osakidetza-Servicio vasco de salud para la representación y defensa de la Administración General del País Vasco en procedimientos de reintegro de gastos médicos seguidos ante la Jurisdicción Social, sin limitación cuantitativa alguna.

*Artículo 2.–* El desarrollo de las funciones a que se contrae la habilitación se producirá bajo la dirección, coordinación y titularidad de la Secretaría General de Régimen Jurídico, para lo cual la Dirección de lo Contencioso podrá dictar órdenes e instrucciones para que los/as Letrados/as puedan ejercer sus funciones ante los distintos órganos jurisdiccionales.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Resolución de la Directora de lo Contencioso, de 14 de abril de 1997, por la que se acordó habilitar a los/as Letrados/as adscritos/as a la Subdirección de Asesoría Jurídica de Osakidetza-Servicio vasco de salud para la representación y defensa de la Administración General en los procedimientos de reintegro de gastos médicos seguidos en la jurisdicción social.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se autoriza a la Vicepresidenta del Gobierno para dictar las normas reglamentarias que sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

*Segunda.–* Este Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 6 de febrero de 2007.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Vicepresidenta del Gobierno,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.